

XVIII. **myndua eta giza**  
zinema **eskubideak**  
erakusketa  
2023ko azaroaren 6tik 10ra

DL NA 2421-2023

DISEINUA: CARMEN ZUDAIRE



Fundación  
**IPES**  
Fundazioa

**golem**




Fundación  
**FELIPE**  
**RINALDI**



**Mugarik Gabe**  
**Nafarroa**  
ONGI ELKARRIETAN

SUBVENCIONAN / DIRUZ LAGUNDU DUTE



**Iruñeko**  
GOBIERNO

# GOIZEKO HEZIKETA SAIOAK

## *Erdi Mailako Ikasteak*

Saioetan, **filmak emango dira**, gaiari sarrera emateko eta eztabaida sortzeko ikasleekin, saiorako gonbidatutako pertsonen azalpenaren bidez.

Saio guztiak **9:00etatik 11:30era** izango dira.

**AZAROAREN 6an ASTELEHENA**

## LA ILUSIÓN DE LA ABUNDANCIA

*Erika González eta Matthieu Lie-  
taert. (Belgika, 2022, 58')*

Hazkunde mugagaberantz bideratutako lasterketa global batean harrapatuta, gobernuak eta korporazioek lehengai merkeenak lortu behar dituzten ingurune batean, **Berthak**, **Carolinak** eta **Máximak** adore nekazetako istorio bat kontatuko dute: nola jarraitu natura babesteko borrokan, beren biziak arriskuan daudenean? Eta nola egin, polizia-errepresioa, enpresa-jazarpena, lesioak eta heriotza-mehatuak beren eguneroko errutinaren zati badira?

## SOLASALDIAN ESKU HARTUKO DUTE:

**GUILLERMO OTANO.** Doktoa da Soziologian NUPen, eta Alboan Fundazioarako Intzidentzia teknikari lanetan ere aritzen da. 2019az geroztik, Justizia Meatzaritzan sarea koordinatzen du, zeinak Latinoamerikan, Afrikan eta Indian meatzaritzak ukitutako komunitateak biltzen dituen.

**ENRIQUE ABAD.** Historialaria eta boluntarioa 1998az geroztik, egun Internóm Oxfam GKEan lan egiten du, lurralde-jardueraren eta kanpainako boluntarioen eta gizarte-mobilizazioko taldeen koordinatzaile lanetan.

Colaboran:

**alboan**



**OXFAM**  
Internóm

## CUERDAS

*Estibaliz Urresola (Espainia, 2022, 30')*

Gaur **Ritak** bilera garrantzitsua du kantuko kideekin: bera kide den emakumeen abesbatza desagertzeko arriskuan dago, entseatzeko lokala alokatzeko erabiltzen zuten udal-dirulaguntza galdu dutelako. Haraneko enpresa handienetako batek, ordea, izugarri kutsatzen duen enpresa batek, taldeari babesletza tentagarria eskaini dio, taldea salbatzeko modukoa. Enpresaren dirua onartu edo ez erabakitzeo elkartu dira emakumeak.

## SOLASALDIAN ESKU HARTUKO DU:

**ESTIBALIZ URRESOLA.** Bere lehen film luzea, 20.000 ESPECIES DE ABELAS, Berlinaleren azken edizioan aurkeztu zuen (2023). Aktore onenaren Zilarrezko Hartza irabazi zuen. Hain zuzen, Sofía Oterok eskuratu zuen. Horrez gain, film onenaren Biznaga de Oro saria lortu zuen Malagako Jaialdian eta aktoreen zerrendako aktore onenaren saria Patricia López Arnaizentzat. Film luze horren aurretik, Estibaliz Urresolak beste lan arrakastatsu batzuk egin ditu, hala nola CUERDAS eta POLVO SOMOS.

## OUR VOICES

*Natxo Leuza (Espainia, 2022, 18')*

**Fadia, Wais** eta **Emram XXI.** mendeko krisi humanitario okerrenetako baten infernutik ihes doaz: Afganistango gatazka armatua. Beren familien aurrezki guztiak gastatu dituzte, eta arriskuan jartzen dute bizitza Europara iritsi ahal izateko. Bidaiaik aldatu egingo ditu, ez dira inoiz izango lehen zirenak.

## SOLASALDIAN ESKU HARTUKO DU:

**NATXO LEUZA.** Zuzendari-, gidoilari- eta muntatzaile-lanetan aritzen da eta bai zinemako postprodukzioan ere due-la 15 urtetik. Ibilbide zabala du zinema dokumentalaren arloan, nazioarteko 70 jaialditan baino gehiagotan hautatu dute eta 25 saririk gora jaso ditu. 2019an, Goya sarietarako hautagai izan zen, film labor dokumental onenaren sailean, BORN IN GAMBIA (2018) lanarekin. EL DROGAS (2020) bere lehen film luzea izan da, eta Donostiako Nazioarteko Zinemaldian, Zinemira sailean, estreinatu zuten.

## BIDASOA 2018 -2023

*Fermin Muguruza (Espainia, 2023, 71')*

Iragaitzako etorkinak Europako gainerako herrialdeetara iristea ekiditeko Frantziak 2018ko udan Bidasoaren muga piriniotar-atlantikoko pasabide batzuetan ezarri zuen polizia-kontrolak eta ixteak 10 heriotza eragin zituen urte batean. Zazpi pertsona hil ziren 2021eko apiriletik Bidasoa ibaiaren urretan itota, Irun eta Hendaia artean, eta beste hiru 2021eko urrian, tren batek harrapatuta Ziburun. Dokumental honek hitza ematen die ibaiaren bi aldeetako aktibistei eta bai zenbait elkarteri ere, adibidez, Harrera Sarea eta Bidasoa Etorikinekin elkarteai.

## SOLASALDIAN ESKU HARTUKO DUTE:

**FERMIN MUGURUZA.** Nazioarteko proiektzioa duen musikaria, lehenbizi Kortatu eta Negu Gorriak taldeekin, eta gero bakarka. 2006an hasi zen dokumentalak egiten.

**JONE UNANUA.** 1991n hasi zen ekoizpen lanetan, ESAN OZENKI diskoetxean. 2001 artean, 100 musika-erreferentziatik gora kale-ratu zituen. 2002 eta 2009 artean, produkzioan aritu zen Hika eta Pok antzerki-taldeekin.

2006an, **BIEK ALA BIEK** TALKA RECORDS & FILMS musika- eta zinematografia-ekoizte-xea sortu zuten, eta bertan **Jone** ekoizlea da, eta **Fermin**, zuzendaria, gidoilaria, ekoizlea eta jatorrizko soinu-banden sortzailea. Sari ugari jaso dituzte beren lanengatik, besteak beste, BLACK IS BELTZA lanarengatik.



**AZAROAREN 6an ASTELEHENA**

**19:30ean / 6,00€**

**BIZIMODUA LANDA-EREMUAN, KRISI  
EKONOMIKOA ETA XENOFOBIA**

# THE OLD OAK

*Ken Loach (Erresuma Batua, 110'. 2023)*

## GONBIDATUA

### BEGOÑA PÉREZ ERANSUS

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Soziologia eta Gizarte Laneko Saileko irakasle titularra. Irakaskuntza ematen du Gizarte Laneko Graduan, Gizarte Politikako irakasgaietan, eta NUPeko Esku-hartze Sozialeko Unibertsitate Masterrean. Bere ikerketa-ildoek gizarte-bazterketaren arloan eta gizarte-politika publikoaren analisisan jartzen dute arreta, eta Estaturako eta Europako hainbat ikerketaren parte hartu du.

## SINOPSISIA

Ingalaterraren ipar-ekialdeko herri batean, non meategia itxi zuten eta sistemak abandonatu egin dituela sentitzen duten herritarrek, The Old Oak izeneko azken puba gelditzen da. Gazte askok alde egin dute, eta behinola komunitate aberatsa eta harroa izan zena, balio zaharrei bizirik eusteko borrokatzen da. Etxeak merkeak dira eta eskuragarri daude, baina sumina eta itxaropenik eza handitzen doaz etengabe. Hara bidaliko dituzte Britainia Handiko gobernuek azken urteetan hartu dituen azken siriarrak errefuxiatuak.

**KEN LOACH** (Nuneaton, Erresuma Batua. 1936). Britainia Handiko telebista-eta zinema-zuzendaria, errealismo sozialeko estiloagatik eta gai sozialistagatik ezaguna. **Loach** Cannesko Zinemaldiko zuzendari sarituenetako bat da, Urrezko Palma bitan irabazi duten 9 zuzendarietako bat baita: 2006an EL VIENTO QUE AGITA LA CEBADA filmarekin eta 2016an YO, DANIEL BLAKE lanarekin.

## SARIA

Locarnoko Jaialdiaren 76. edizioan (2023), ikus-entzuleen saria.



**GONBIDATUA**  
**NATXO LEUZA,**  
dokumentalaren zuzendaria.

## AZAROAREN 7an ASTEARTEA

17:30ean

UKRAINKAOK GERRA

# WHY

*Natxo Leuza (Ukrania, 22'. 2022)*

DOAKO  
SAIOA

### SINOPSISIA

Zergatik gerra hau? Zergatik egiten digute tiro? Zergatik suntsitzen dute dena? Zergatik naiz beldur? Zergatik hii nahi gaituzte? Zergatik halako gorrotoa? Zergatik hiltzen dituzte gure seme-alabak? Zergatik kentzen digute dena? Zergatik egin behar dut ihes? Zergatik da beharrezkoa besteek gu askatzea eta erreskatzea? Zergatik erabaki du norbaitek dena ezabatzea?

**NATXO LEUZA** (Iruñea, 1977). Zuzendari-, gidoilari- eta muntatzaile-lanetan aritzen da eta bai zinemako postprodukzioan ere duela 15 urtetik. Ibilbide zabala du zinema dokumentalaren arloan, nazioarteko 70 jaialditan baino gehiagotan hautatu dute eta 25 saritik gora jaso ditu. 2019an, Goya sarietarako hautagai izan zen, film labor dokumental onenaren sailean, BORN IN GAMBIA (2018) lanarekin. EL DROGAS (2020) bere lehen film luzea izan da, eta Donostiako Nazioarteko Zinemaldian, Zinemira sailean, estreinatu zuten.

### SARIAK

Argazki onenaren saria New York Shorts International Film Festivalen (2022), Dokumental onenaren saria Festival Corto Ciudad Realen (2023), Film labor onenaren saria Festival de Cine de Àgerren (2023), Ohorezko aipamena Certamen de cine corto de Tres Cantosen (2023), Film labor dokumental onenaren saria iCOFF-Gasteiz film laburren jaialdian (2023), FemCine saria Ibiza Cinefest – Shorten (2023), Dokumental onenaren saria El Paso Media Fest – Shorten (2023), Dokumental onenaren saria Vancouver Independent Film Festivalen (2023).



## AZAROAREN 7an ASTEARTEA

19:30ean / 6,00€

MUGAK,  
MIGRAZIOA, HARRERA

# BIDASOA

*Fermin Muguruza (Espainia, 71'. 2023)*

### GONBIDATUAK

**FERMIN MUGURUZA**, dokumentalaren zuzendaria, eta **JONE UNANUA**, ekoizlea.

**JONE UNANUA** 1991n hasi zen ekoizpen lanetan, ESAN OZENKI diskoetxean. 1991 eta 2001 artean, 100 musika-erreferentziatik gora kale-ratu zituen. 2002 eta 2009 artean, produkzioan aritu zen Hika eta Pok antzerki-taldeekin. 2006an, Fermin Muguruzarekin batera, TALKA RECORDS & FILMS ekoiztetxea sortu zuen, eta filmen ekoizle exekutiboa izan da, esate baterako, BLACK IS BELTZA eta ZULOAK filmetan.

### SINOPSISIA

Dokumental hau, iragaitzaketo etorkinak sartzea ekidite aldera, Bidasoaren muga piriniotar-atlantikoko pasabide batzuk itxi izanaren eta polizia-kontrolaren gainekoa da, Frantziak 2018ko udan ezarri zuen itxeta eta urte bakar batean 10 heriotza eragin zituen. Bertan, ibaiaren alde bateko eta besteko aktibistetako batzuei hitza eman eta aurpegia jartzeaz gain, bizia galdu zutenak ere oroitzen dira, izena, adina eta ametsak ezagutaraziz, hildakoen kopuru hotzen atzean dauden pertsonak eta historiak kontatuz.

**FERMIN MUGURUZA** (Irun, Gipuzkoa. 1963). Nazioarteko proiektzioa duen musikaria, lehenbizi Kortatu eta Negu Gorriak taldeekin, eta gero bakarka. 2006an hasi zen dokumentalak egiten. Urte horretan, TALKA RECORDS & FILMS musika- eta zinematografia-ekoiztetxea sortu zuen, Jone Unanurekin batera, eta bertan aritu da zuzendari, gidoiari, ekoizle eta jatorrizko soinu-banden sortzaile lanetan. Sari ugari jaso dituzte jaialdietan, besteak beste, Galiziako Amal jaialdian, dokumental onenaren saria Checkpoint Rock lanarengatik, eta Monterreyko Nazioarteko Jaialdian, animaziozko film onenaren saria BLACK IS BELTZA lanarengatik.

### SARIAK

Dokumentala irailaren 28an aurkeztu zuten Donostiako Nazioarteko Zinemaldian (2023), eta urriari DOCSMX Mexiko Hiriko Zinema Dokumentalaren Nazioarteko Jaialdian (2023).



## AZAROAREN 8an ASTEAZKENA



19:30ean / 6,00€

DESGAITASUNA ETA GENEROA

# LA SINGLA

*Paloma Zapata (Espainia, 95'. 2023)*

## LA SINGLA

UNA PELÍCULA DE PALOMA ZAPATA

### GONBIDATUAK

**PALOMA ZAPATA** filmaren zuzendaria, eta **HELENA KAITTANI**

### HELENA KAITTANI

Kordobar aktorea, flamenko-dantzarria eta flamenkoaren zalea. 17 urte eskasekin hasi zen antzetzan, Rocío Juradoren rola jokatzuz COMO ALAS AL VIENTO lanean. Geroztik, Espainiako telesail ugarietan lan egin du, adibidez, B&B, PERDÓNAME, SEÑOR eta DESAPARECIDOS sailetan, zenbait film laburretan eta luzetan, esate baterako, Paco Sepúlvedaren HISTORIAS filmean eta Brian de Palmaren DOMINO filmean. Helenak alde fikzionatua antzetzu du LA SINGLA ren dokumentalean

### SINOPSISIA

**Singla** gor gelditu zen jaiotzean. Musika entzun gabe ikasi zuen dantzatzeko, eta mina uxatzeko erabiltzen zuen dantza. Flamenko-dantzari gazteak, 17 urte eskasekin, iraultza ekarri zuen flamenkora, baina 30 urte bete baino lehen agertokietatik desagertu zen..

**PALOMA ZAPATA** (Murtzia, 1979). Arte Ederretan lizentziaduna eta masterra Sormenezko Dokumentalean, bere ekoiztetxea sortu zuen 2008an Bartzelonan, La Fábrica Naranja. Bere ibilbidea musikari lotuta egon da beti: bideoen ekoizlea, muntatzailea eta zuzendaria izan da artistentzat, adibidez, **Caalexico** eta **Pitbull**entzat, eta diskoetxeetarako, adibidez, Universal eta Polydor etxeetarako, eta bai musika-dokumentaletarako ere. **Peret** musikariari buruzko YO SOY LA RUMBA bere filma Gaudí sarietarako izendatu zuten 2020an.

### SARIAK

Ikus-entzuleen saria jasoa Festival DocsBarcelona jaialdiaren 26. edizioan (2023) eta Errusiako Zineklubaren Federazioak emandako "Begirada aztertzailea" saria, Moskuko Nazioarteko 45. Zinemaldiaren esparruan.



AZAROAREN 9an OSTEGUNA



17:30ean

ERREFUXIATUAK

# EXOPÍA

*Aritz Gorostiaga (Espainia, 79'. 2023)*

DOAKO  
SAIOA

## GONBIDATUAK

**ARITZ GOROSTIAGA**, dokumentalaren zuzendaria, eta EXOPÍA taldeko kideak. **David Moreno "Lobito"** Muxutrock taldeko abeslaria. Talde horrek 2015az geroztik bere diru-sarreraren % 100 EM NAVARRAri ematen dizkio. **Mikel Mendibil Ainzua**, lizentziaduna Arte Ederretan, ilustratzailea, diseinatzaile grafikoa eta multimedia sortzailea 1999az geroztik. **M. José Zapata Morcillo**, Zaporeak elkarteko boluntarioa 2018tik. **Ana Larumbe Oilo**, Zaporeak elkarteko boluntarioa Nafarroan eta 2017az geroztik beste erakunde batzuetako boluntarioa Chiosen eta Atenasen.

## SINOPSISIA

Hasierako ideia izan zen Nafarroako Muxutrock taldeak kontzertu bat ematea errefuxiatu-eremu batean, baina ezin izan zen egin. Aitzitik, Iruñeko aktibista-talde honek dokumental bat aurkeztu digu, non, Atenasen eta Lesbos uhar-tearen bidez, Europan babes bila dabiltzanen errealitatea aurrez aurre jartzen díguten. Musikaz, emozioz, minez eta itxaropenez betetako bidaia da, egun batetik bestera beren lurraldea uztera behartuta egongo zirela inoiz pentsatu ere egin ez zuten gizon, emakume eta haur horientzat bozgorailua izan nahi duena.

**ARITZ GOROSTIAGA** (Belgika, 1972). 20 urte baino gehiago daramatza ikus-entzunezkoen sektorean lan egiten. Kameraria, editorea eta errealizadorea izan da dokumental sozialen eta memoria historikoko hainbat proiektutan.



# Arnasa betean

A pulmón

Emakume zinemagileak Mujeres cineastas



## GONBIDATUAK

**ROSA ZUFÍA**

**BERTHA GAZTELUMENDI**

filmaren zuzendariak.

AZAROAREN 9an OSTEGUNA

19:30ean / 6,00€

EMAKUME ZINEMAGILEAK



# ARNASA BETEAN. A PULMÓN

*Rosa Zufía, Bertha Gaztelumendi (Espainia, 75'. 2023)*

## SINOPSISIA

Iraganeko eta egungo emakume zinemagile euskaldunak dira protagonistak emakumeek egindako zineman egindako murgiltze sakon honetan. Hiru urpekarik urpeko bidaia batean gidatuko gaituzte, emakumeek zuzendutako zinemaren istorioen bidez, haien filmen gaiak, pertsonaiak, begirada, ametsak, aurrera egin ahal izateko ahaleginak eta gizarteari egindako ekarpenak nabarmenduz.

**ROSA ZUFÍA** (Tutera, 1958). 30 urtean Euskal Telebistan lan egin duen kazetaria, erredaktore-editore lanetan eta kulturako eta zinemako saioak zuzentzen. Donostiako Tabakalera kultura garaikideko nazioarteko zentroa sortzen ere lagundu zuen, komunikazioko zuzendari gisa. Besteak beste, Donostiako Zinemaldiko RTVE-Beste begirada bat sariko epaimahaikidea ere izan da.

**BERTHA GAZTELUMENDI** (Irun, 1962). Kazetaria, errealizadorea eta, egun, ikertzailea EHUKo Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedran. Arnasa betean. A PULMÓN bere seigarren filma da. Aurretik lan hauek zuzendu ditu: MARIPOSAS EN EL HIERRO (2012), VOLAR (2017), EZ, ESKERRIK ASKO! LA VENTANA DE GLADYS (2019), NEGAR FRANKO EGINGO ZUEN AITAK (2014) eta LAS BUENAS COMPAÑÍAS (2015, Nuria Casalekin batera) film laburra.



AZAROAREN 10ean OSTIRALA

19:30ean / 6,00€



MIGRAZIOA

# IO CAPITANO

*Matteo Garrone (Italia, 121'. 2023)*

## SINOPSISIA

Dakar utzi eta Europara abiatuko diren bi lehengusuren historia epikoa kontatzen du *Io capitano* lanak. Odisea garaikide honetan, gazteek oztopo ugari gainditu beharko dituzte, basamortuan eta itsasoan bizirik irauteko borroka batean.

**MATTEO GARRONE** (Erroma, 1968). 1997an debuta egin zuen *TERRA DI MEZZO* lanarekin, eta horren ondotik etorri ziren *OSPITI* (1998), *ESTATE ROMANA* (2000), *L'IMBALSAMATORE* (2002) eta *PRIMO AMORE* (2005). Azken horrekin Berlinen lehiatu zen. 2008an, Cannesen, Epaimahaiaren Sari Handia lortu zuen *Gomorra* lanarengatik eta Europako zinemako 5 sari, film onenaren eta zuzendari onenaren sariak barne. *REALITY* (2012) lanarekin berriro irabazi zuen Cannesen Epaimahaiaren Sari Handia, eta bertan lehiatu zen berriz *IL RACCONTO DEI RACCONTI* (Ipuinen ipuina, 2015) eta *DOGMAN* (2018) lanekin, zeinak aktore onenaren saria jaso zuen. 2019an, *PINNOCHIO* (Pinotxo) zinemarako egokitu zuen, eta Oscar sarietarako bi izendapen eskuratu zituen. *IO CAPITANO* filmak zuzendari onenaren Zilarrezko Lehoia irabazi zuen Venezian eta aktore gazte onenaren Marcello Mastroianni saria (Seydou Sarr).

## SARIAK

Ikus-entzuleen saria - Europako Film Onena Donostiako Zinemaldian (2023), Zilarrezko Lehoia - Zuzendari Onena (Matteo Garrone) eta Gorantz doan Aktore Gazte Onena (Seydou Sarr) Veneziaiko Zinemaldian (2023).

## GONBIDATUA

### ANA M. ROSADO CARO

Diplomaduna da Gizarte Lanean, eta Cadizko Unibertsitateko Genero, Identitate eta Herritartasun Masterra du. Ikertzailea da Hegoaldeko Mugarako Taldean, Giza Eskubideen aldeko Andaluziako Elkarteko Migrazioen Arloan. 2017az geroztik koordinatzailea da "Derechos Humanos en la Frontera Sur" txostenean. Egilekidea izan da "Respeto y dignidad para las mujeres marroquíes que portan mercancías en la frontera de Marruecos con Ceuta" eta "Porteadoras: la feminización de la pobreza en la Frontera Sur" txostenetan. Código Malva Elkarte Feministan aktibista da eta boluntarioa Elín-Ceuta Elkartean.